

**UKRANIAKO ERREFUXIATUEI HARRERA EGITEKO MAHAIA  
MESA PARA LA ACOGIDA PERSONAS DE REFUGIADAS DE UCRANIA**

2022-03-10 Vitoria-Gasteiz 10-03-2022

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Presidentea, sailburuok, Espainako Gobernuaren ordezkaria, Zehar errefuxiatuekin, Zehar Gurutze Gorria-Cruz Roja, ACCEM, MPDL, Cáritas eta Fundación Ellacuría Elkarteetako ordezkariak, arratsalde on eta eskerrik asko gure deialdiari erantzuteagatik.

2022ko otsailaren 24tik, Errusiako Gobernuak Ukrainaren gaineko inbasio militarra hasi du. Beste ondorio askoren artean, ihesi doazen milioika pertsonen desplazamendua dakar eraso bidegabe horrek.

2022ko martxoaren 3an, Europako Batzordeak argi berdea eman zion 2001/55 Zuzentarauaren aplikazioari. Zuzentarau horrek Ukrainatik joandako pertsonen nazioarteko babesak ematera behartzen ditu Europako Estatu kideak.

Babesak berekin dakar bizileku- eta lan-baimena, hezkuntza, bizileku egokia, gizarte-laguntza, finantza-laguntza eta osasun arreta ematea. Babes horrek urtebeteko iraupena du, eta bi urtera luza daiteke.

Harrera horretan laguntzeko borondatea dugu euskal erakundeok, eta Zuzentarau hori betetzeko konpromisoa hartzen dugu.

Gure ekarpena Estatuko Administrazioaren erantzuna osatzera bideratzen da, nazioarteko babesaren arloan eskumena baitu.

En este marco compartimos hoy este **“Primer Plan de Contingencia de Euskadi para la acogida de personas desplazadas por causa de la invasión de Ucrania”**.

Se trata de un “primer plan provisional” con un periodo de vigencia de tres semanas. Con la información disponible en este momento, resulta imposible predecir el número personas que puedan llegar a Euskadi, o sus plazos de llegada.

Desconocemos por otra parte, hasta hace unas horas, los recursos que el Estado va a articular para la aplicación de la Directiva europea en cuanto a los derechos que otorga la protección temporal, o en cuanto a las ayudas económicas para la subsistencia de las personas desplazadas.

Tampoco disponemos todavía de una cobertura jurídica definida para la acogida temporal de menores sin referente familiar.

Estas son incógnitas que, en este momento, no están despejadas o no lo están del todo. A pesar de ello, las instituciones vascas tenemos la obligación de disponer con antelación los recursos necesarios para ofrecer una acogida digna a las personas refugiadas.

En este contexto este primer Plan tiene tres características fundamentales:

-Vigencia limitada: desde el 10 al 31 de marzo. De este modo, sus previsiones podrán ser actualizadas en función de la disposición de nuevas informaciones.

-Previsión provisional: el Plan puede ser adaptado en función de la evolución de los acontecimientos.

-Acogida digna. Garantizar, en cualquier caso, una acogida a la medida de la dignidad humana durante estas primeras semanas de transición. Con este fin se contemplan dos escenarios posibles:

### **Escenario 1. “Acogida con recursos ordinarios reforzados”**

La hipótesis en este caso es que la llegada de personas durante estas primeras semanas pudiera situarse entre 500 y 700 personas. Es el escenario en que nos encontramos ahora.

Egoera horretan, harrera-baliabideak ditugu. Zehazki honako hauek dira:

-Estatuaren Harrera eta Integrazio Sistemaren barruan erabilgarri dauden plazak;

-Irun, Oñati, Tolosa eta Berrizko zentroen baliabideak;

-Euskadiko ostatu edo hoteletan ostatua hartzeko aurreikuspena;

-Alokabidek eta udalek eskain ditzaketan etxebizitzak;

-Herritarrek elkertasunez eta borondatez eskainitako etxebizitzak; edo ukrainar jatorriko familiek, senideak edo hurbilekoak etxean hartzeko asmoa dutenak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, Gurutze Gorriarekin lankidetzan, telefono bat eta aurrez aurreko zerbitzu bat jarriko du hiru hiriburuetan, Euskadira iristen diren ukrainarrei informazioa eta arreta emateko.

### **Escenario 2. “Acogida con recursos adicionales”.**

Este escenario contempla como hipótesis que la llegada oscile entre 700 y 1.500 personas en el supuesto más bajo; y entre 1.500 y 3.000 o más, en el supuesto más alto.

En este Escenario, además de los recursos del Escenario 1 mencionados, se desplegarían recursos de acogida adicionales. En concreto se prevé la creación de:

-Una red de traductores voluntarios, también para el Escenario 1;

-Servicio de información y acogida inicial en aeropuertos, estaciones de trenes y autobuses;

-Servicio de recepción y orientación inicial en cada una de las capitales;

-Plan de alojamiento de urgencia en recursos disponibles, en hoteles y hostales;

-Servicio de acompañamiento inicial e identificación de solución habitacional estable. Contamos con tres tipos de solución habitacional estable: viviendas de familiares o allegados, viviendas dispuestas por las instituciones y viviendas de ofrecimiento social.

Se prevé también ofrecer, por parte de las Diputaciones Forales, la atención necesaria a menores sin referente familiar y personas en situación de vulnerabilidad.

Los Servicios Sociales Municipales, por su parte, actuarán como referente ordinario para su integración social.

Horrekin batera, bizirauteko laguntza ekonomikoak bermatzeko Estatuaren mekanismoa zehaztuta ez dagoen bitartean, Eusko Jaurlaritzak akordio bat prestatuko du gizarte-erakundeekin, pertsoneri eta familiei behar izan ditzaketen laguntza ekonomikoak helarazteko.

Lehen Kontingentzia Plan honek aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak herritarren elkartasuna bideratzeko proposamen bat egitea.

Osagarri gisa, bizileku kolektibo gehigarriak identifikatzeko lanean ari gara, bai titulartasun publikoko egoitzetan, bai erakunde erlijiosoetan edo beste mota bateko egoitzetan. Bizileku hauek Ukrainatik etorritakoen kopura altua izanez gero erabil ahal izango dira.

Horrekin guztiarekin batera, laguntza-gaitasun esanguratsua duten erakundeekin komunikazioan gaude edo koordinatzen ari gara. Hala nola Txernobiletik datozen haurrak hartzen dituzten euskal familien elkarrekin, Ukraina eta Euskadi lotzen dituzten erakundeekin, tokian bertan lanean ari diren gizarte-erakundeekin, edo Eliza Ortodoxoaren eta Katolikoaren ordezkariarekin.

Azkenik, eta gaur argitaratutako ministro-agindua ezagutu ondoren, Eusko Jaurlaritzak bere baliabide eta aukeren arabera, Estatuko administrazioari bere laguntza eskaintzen dio, babesa aitortzeko izapideak kudeatzeko.

### **Termino.**

La disposición del Gobierno Vasco es actuar en un marco de colaboración plena y leal con el Gobierno español en el ámbito de las competencias y recursos que así lo requieren. Simultáneamente todos los Departamentos del Gobierno Vasco están trabajando en los ámbitos prioritarios de los servicios públicos de salud, educación e inserción laboral, que iremos concretando a lo largo de los próximos días.

Compartimos una voluntad de acogida que se fundamenta en principios normativos de responsabilidad y corresponsabilidad; y también en principios éticos y de solidaridad.

Desde el punto de vista normativo, las instituciones vascas tenemos la determinación de cumplir las obligaciones del derecho internacional de los derechos humanos, del derecho internacional humanitario y del derecho internacional de las personas refugiadas.

Desde el punto de vista ético, el Pacto Social Vasco para la Migración, suscrito el 30 de noviembre de 2019, nos ofrece un marco de referencia.

Este Pacto nos compromete porque “en materia de migración o asilo, el principio ético prevalente es ofrecer lo que necesitaríamos recibir, caso de encontrarnos en una situación similar”.

Horixe da Euskadiko Lehen Kontingentzia Plan honen xedea: jaso beharko genukeena eskaintzea, antzeko egoeran egonez gero.

Eskerrik asko!